

**BERTARATUAK**  
**ALKATE-UDALBURUA**

Saioa Villanueva Zarandona and.

**ALKATEORDEAK**

Alain Goldaraz Rodríguez jn.  
Leire Pinedo Bustamante  
Betitxe Saitua Estébanez and.  
Juan Guillermo García de la Fuente jn.  
Sonia Huidobro Ruiz and.

**ZINEGOTZIAK**

Fernando Sánchez Sánchez jn.  
Josu Landaluze Zarandona jn.  
Leire Basauri Castellanos and.  
Naiara Ibarzabal Arrasate and.  
Gontzal Hermosilla Ramos jn.  
Felix Gabarain Amenabar jn.  
Emilio Ramos Rodríguez jn.  
Belén Urbietta Pérez, and.  
María Teresa Fernández García and.  
Pablo Ignacio Zabala Fernández,jn.  
Berta Rodríguez Fernández and.

**BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA**

Begoña Irastorza Areizaga, and.

Sopelanan, bi mila eta hamahiruko otsailaren hogeitazortzian, arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean, Udaletxean bildu dira goian adierazitako zinegotziak, Saioa Villanueva Zarandona alkate-udalburu andrearen burutzapean, ohiko osoko bilkura egiteko, deialdian ezarritako gai-zerrendaren arabera, eta bertan izan da bilkuraren fede eman duen Begoña Irastorza Areizaga andrea, behin-behineko idazkaria

1.- 2012KO ABENDUAREN 20KO ETA 2013KO URTARRILAREN 31KO OSOKO UDALBATZEN AKTEN ONARPENA, BALEGOKIO. Osoko Bilkurak, aho batez, ondokoa erabaki du: hurak onestea,

2.- OTSAILAREN 13KO 0147/2013 ALKATETZA DEKRETUAREN BERRI EMATEA.- GAIA: DIRU-BILKETAKO 2012KO KONTU OROKORRA ONARTZEA. Honen berri emanda, eta hitzez-hitz honela diola:

**ALKATEAREN DEKRETUA**  
**0147/ 2013 ZENBAKIDUNA**

Sopelan, 2013ko otsailaren 13ean.- I indarreko legeriarekin bat, ondoko hau

**SRES. ASISTENTES**  
**ALCALDESA-PRESIDENTA**

D<sup>a</sup> Saioa Villanueva Zarandona

**TENIENTES DE ALCALDE**

D. Alain Goldaraz Rodríguez  
D<sup>a</sup> Leire Pinedo Bustamante  
D<sup>a</sup> Betitxe Saitua Estébanez  
D. Juan Guillermo García de la Fuente  
D<sup>a</sup> Sonia Huidobro Ruiz

**CONCEJALES**

D. Fernando Sánchez Sánchez  
D. Josu Landaluze Zarandona  
D<sup>a</sup> Leire Basauri Castellanos  
D<sup>a</sup> Naiara Ibarzabal Arrasate  
D. Gontzal Hermosilla Ramos  
D. Felix Gabarain Amenabar  
D. Emilio Ramos Rodríguez  
D<sup>a</sup> Belén Urbietta Pérez  
D<sup>a</sup> María Teresa Fernández García  
D. Pablo Ignacio Zabala Fernández  
D<sup>a</sup> Berta Rodríguez Fernández

**SECRETARIA ACCIDENTAL**

D<sup>a</sup> Begoña Irastorza Areizaga

En Sopelana, a veintiocho de febrero de dos mil trece, siendo las diecinueve horas y treinta minutos, se reúnen en la Casa Consistorial los componentes del Ayuntamiento arriba señalados, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa-Presidenta Dña. Saioa Villanueva Zarandona, a los fines de celebrar sesión ordinaria de Pleno, con arreglo al Orden del Día designado en la convocatoria, con la asistencia de la Secretaria Accidental D<sup>a</sup> Begoña Irastorza Areizaga que certificará del acto.

1.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESION PLENARIA DE FECHAS 20 DE DICIEMBRE 2012 Y 31 DE ENERO 2013. Dada cuenta de las mismas, los asistentes, por unanimidad, acuerdan: Su aprobación.

2.- DACION DE CUENTA DECRETO DE ALCALDIA NUMERO 0147/2013, DE 13 DE FEBRERO, RELATIVO A LA APROBACION DE LA CUENTA GENERAL DE RECAUDACION CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO 2012.- Dada cuenta del mismo, que es del siguiente tenor literal:

**DECRETO DE ALCALDIA**  
**NUMERO 0147/2013**

En Sopelana, a 13 de febrero de 2013.- De acuerdo con la legislación vigente

**EBATZI DUT:**

Udal honetako Diru Bilketako eta Errentako Administrazio Unitatearen arduradunaren txostena ikusita, 2012ko Diru Bilketako Kontu Orokorra onartzea. Hona hemen laburpena:

**RESUELVO:**

Aprobar la Cuenta General de Recaudación correspondiente al ejercicio 2012, rendida por el Responsable de la Unidad Administrativa de Recaudación y Rentas, cuyo resumen es el siguiente:

**2012KO KONTU OROKORRA. BORONDATEZKO DIRU-BILKETAREN LABURPENEA.  
RESUMEN VOLUNTARIA CUENTA GENERAL DE RECAUDACION 2012**

<b>EKITALDIA EJERCICIO</b>	<b>AURREKO ZORRAK PENDIENTE ANTERIOR</b>	<b>ZORRAK GUZTIRA TOTAL DEBE</b>	<b>HARTZEKOAK GUZTIRA TOTAL HABER</b>	<b>KOBRATZEKO PENDIENTE DE COBRO</b>
2002	1.572,70 €	1.572,70 €	0,00 €	1.572,70 €
2004	232,96 €	232,96 €	0,00 €	232,96 €
2005	142,13 €	142,13 €	0,00 €	142,13 €
2006	56.215,87 €	56.215,87 €	0,00 €	56.215,87 €
2007	1.549,20 €	1.549,20 €	0,00 €	1.549,20 €
2008	3.405,75 €	3.405,75 €	0,00 €	3.405,75 €
2009	301,00 €	301,00 €	0,00 €	301,00 €
2010	2.649,67 €	2.649,67 €	56,21 €	2.593,46 €
2011	268.005,21 €	268.345,66 €	266.497,31 €	1.848,35 €
2012	0,00 €	1.922.988,49 €	1.818.264,04 €	104.724,45 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>334.074,49 €</b>	<b>2.257.403,43 €</b>	<b>2.084.817,56 €</b>	<b>172.585,87 €</b>

**2012KO KONTU OROKORRA. NAHITAEZKO DIRU-BILKETAREN LABURPENEA.  
RESUMEN EJECUTIVA CUENTA GENERAL DE RECAUDACION 2012.**

<b>EKITALDIA EJERCICIO</b>	<b>AURREKO ZORRAK PENDIENTE ANTERIOR</b>	<b>KARGUAK GUZTIRA TOTAL CARGOS</b>	<b>HARTZEKOAK GUZTIRA TOTAL HABER</b>	<b>KOBRATZEKO PENDIENTE DE COBRO</b>
1995	3.551,08 €	3.551,08 €	10,94 €	3540,14
1996	116,69 €	116,69 €	0,00 €	116,69
1997	382,05 €	382,05 €	0	382,05
1998	1.425,92 €	1.425,92 €	91,34	1334,58
1999	278,21 €	278,21 €	0	278,21
2000	347,63 €	347,63 €	0	347,63
2001	611,91 €	611,91 €	8,95	602,96
2002	1.129,96 €	1.129,94 €	12,25	1117,69
2003	3.600,07 €	3.600,07 €	36,74	3563,33
2004	4.108,69 €	4.108,69 €	14,24	4094,45
2005	33.073,61 €	33.073,61 €	355,05	32718,56
2006	36.262,96 €	36.262,96 €	635,67	35627,29
2007	25.648,40 €	25.648,40 €	1735,35	23913,05
2008	33.466,36 €	33.466,36 €	4099,59	29366,77
2009	158.005,36 €	158.005,39 €	5549,9	152455,49
2010	103.470,81 €	103.476,79 €	13020,69	90456,1
2011	152.807,37 €	178.673,17 €	85644,6	93028,57
2012	200,00 €	251.605,95 €	57380,65	194225,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>558.487,09 €</b>	<b>835.764,82 €</b>	<b>168595,96</b>	<b>667168,86</b>

Osoko Udalbatzak, aho batez, erabakitzen du: Jakinaren gainean jartzea.

El Pleno, por unanimidad acuerda: Darse por enterado.

**Euskera, Hezkuntza eta Kultura**

**3.- UDALERRIAREN IZEN OFIZIALA ALDATU ETA "SOPELA" JARTZEKO ALKATETZAREN PROPOSAMENA.**

Ezagutarazi da izapidetutako espedientea.

Ondoren, hitza hartu du Bildu udal-talde politikoko zinegotzi Betitxe Saitua andreak, eta adierazi duenez, gai hau duela bi hilabete landu zen Euskera, Hezkuntza eta Kulturako Informazio Batzordean, bai eta egindako azken informazio-batzordean ere. Talde politiko guztiek ezagutzen dutela proposamenaren testua, baina, hala ere, irakurri egingo duela; izan ere, bere ustez, euskaldun askok horretan sinetsi dute, eta, horregatik, garrantzitsua da.

*"Herri baten, udalerrri baten, izena bertako biztanleen identitatearen parte dela esan dezakegu, baita Sopelaren kasuan ere, zalantzarik gabe. Sarritan gertatzen da, baina, udalerrri bat ez dela ezagutzen izen bakar batez, izen desberdinez edo izenaren aldaera desberdinez ezagutzen dutelarik bertakoek edo/eta ingurukoek.*

*Batzuetan tokikoek udalerrriaren izen ofizialarekiko erabiltzen duten aldaeran datza desberdintasuna, izen ofiziala vs. lokalismoa alegia (Bermeo/Bermio, Lekeitio/Lekitto, ...).*

*Beste batzuetan, agintariak udalerrriaren izenari gertakizun historiko batekin lotutako erreferentziaren bat erantsi diotenean-edo, herritarrek ohiko izena erabiltzen dute ofiziala erabili beharrean, erosotasunagatik edo erantsitako zatiaren esanahiarekin identifikatzen ez delako ("villafranca de", "de las armas", "de la victoria", "del caudillo", ditugu udalerrrien izenei erantsi ohi zaizkien erreferentzia historikoen adibide).*

*Gerta liteke ere, udalerrri baten lurralde-eremua historikoki aldatu eta herritarrengan erreferentzia desberdinak sortu izan direlarik, erabilitako izena eta izen ofiziala bat ez etortzea (Gernika-Lumo/Gernika, Amorebieta-Etxano/Zornotza).*

*Euskara hizkuntza ofizial aintzatetsia izan arte, azkenik, sarritan gertatu izan da udalerrrien, herrien eta tokien euskal izena baztertuta izatea, gaztelaniazko izen ofizial baten edo euskal izen horren bertsio erromantzearen mesedetan. Hamarkadak joan ahala, baita mendeak ere, izen bat edo bestea errotuago egongo da jende edo lurraldearen esparru batzuetan besteetan baino. Egoera horretan zaila izan liteke izenaren forma jatorra zein den asmatzea, baita izen ofizialak duen herri-onarpena kontuan hartuta aldaketarik egin behar den edo ez erabakitzea.*

**Euskera, Educación y Cultura**

**3.- PROPUESTA DE ALCALDIA PARA CAMBIO DE DENOMINACION DEL MUNICIPIO AL DE "SOPELA":-**

Dada cuenta del expediente tramitado,

A continuación toma la palabra D<sup>a</sup> Betitxe Saitua, del Grupo Político Municipal Bildu, para señalar que este tema se trabajó hace aproximadamente dos meses en la Comisión Informativa de Euskera, Educación y Cultura así como en la última Comisión Informativa celebrada. Que a pesar de que todos los grupos políticos conocen el texto de la propuesta, va a proceder a su lectura, toda vez que considera importante la misma por la relevancia que tiene ya que muchos vascos y vascas han creído en ello.

*"Puede decirse que el nombre, la denominación de una población, de un municipio, forma parte de la identidad de sus habitantes, lo cual, sin duda, puede aplicarse también al caso de Sopela. A menudo, sin embargo, sucede que un municipio no es conocido por una única denominación, sino que sus habitantes y/o los habitantes del territorio circundante lo denominan con nombres diferentes o con diferentes variantes de ese nombre.*

*En algunos casos, la diferencia estriba en la variante del nombre oficial usada por los lugareños, es decir, denominación oficial vs. localismo (Bermeo/Bermio, Lekeitio/Lekitto,...).*

*En otros casos, debido, por ejemplo, a que las autoridades han añadido una referencia ligada a algún hecho histórico, los habitantes utilizan el nombre común en lugar del oficial, por comodidad o porque no se sienten identificados con el significado de la parte añadida ("villafranca de", "de las armas", "de la victoria", "del caudillo", son ejemplos de referencias históricas que han sido añadidas a nombres de municipios).*

*Puede suceder, también, que el nombre comúnmente utilizado y el oficial no coincidan, al alterarse el ámbito territorial del municipio y generarse referencias diversas entre la ciudadanía (Gernika-Lumo/Gernika, Amorebieta-Etxano/Zornotza).*

*Tenemos, por último, que hasta que el euskera fue reconocido como lengua oficial, ha sucedido a menudo que el nombre vasco de municipios, poblaciones y lugares ha sido descartado, en favor de un nombre oficial en castellano o en la versión romance del nombre vasco en cuestión. Con el paso de décadas, o incluso de siglos, una u otra denominación arraigará más en algunos sectores sociales o territoriales que en otros. En esa situación podría resultar difícil discernir la forma original de la denominación, así como determinar si se debe modificar la denominación oficial teniendo en cuenta el arraigo*

Sopelako udalerrian egoera hori dugu hain zuzen ere, Sopelana dela gure udalerraren izen ofiziala eta euskal izen jatorra eta arautua, baita bertako herritarren zein kanpokoen artean erabilera maila handia duena, aldiz, Sopela. Udalerraren izena aldatzea legediak ahalbidetzen duten erabakia ez ezik, legeari berari egokitzeko egiteka komenigarria ere bada. Udalbatzari dagokio, alabaina, izen aldaketa onartzea, erabakiak balioa izan dezan, beste erakunde batzuren ezinbesteko berrespenaren kaltetan gabe. Udal agintarioi dagokigu balizko aldaketa baterako arrazoirik, aukerarik eta baldintzarik egon litekeen ala ez aztertzea, egokitasunari buruzko jarrera hartzea eta, Udalbatza elkaturik, unea iritsiz gero, erabaki bat hartzea.

### **KONTUAN HARTU BEHARREKOAK**

**Lehena.-** Joan den azaroaren 15eko Osoko Bilkuran, Udalbatzaren gehiengo osoak adierazpen insituzionala onartu zuen Euskararen Nazioarteko eguna zela eta. Adierazpenak jasotzen zuenez, "araurik gabe jarduteak berez laguntzen baitu hizkuntzarik indartsuena ... Indar politikoon artean... gai ere bagara aurrez aurre dugun erronkari ekiteko: guk geuk -bakoitzarengan, gizarte zibileko elkarteetan eta erakundeetan errotutako inertziek eraginda- euskararen erabilera handitzeko lanean jartzen ditugun oztopoak kentzea, azkenean bidea zabal diezaiozun hizkuntz normalizazioari".

Adierazpen insituzionalaren bidez, Udalak hainbat konpromiso hartzeko aldarrikapena egin zuen, hala nola, "euskararen erabileraren aukera berriak zabaltzea... aldi berrietara egokitzea... eta hiritar bakoitzaren hizkuntza aukerari zor zaion errespetuarekin, eguneroko jardunean euskararen erabilera ahalbidetzeko jarrerak eta jokaerak indartzea".

Bukatzeko, honako ahalegin hau aldarrikatzen zuen: "euskararen erabileraren aldeko politika orekatua, berdintasun, berreskurapen eta hizkuntz eskubideen bermearen printzipioan oinarrituta, eta muturkeriatan geratzeko tentalditik urrundu. Gure buruari zor diogu, belaunaldi berriei zor diegun moduan".

Udalbatzaren %82aren babesarekin onartu izanak, oinarri sendoa ematen die adierazpenean jasotako konpromiso zein irizpide nagusiei. Udalerraren izena euskal era jator eta arautuaren arabera jartzea

popular de la denominación oficial.

Es la situación que actualmente tenemos en el municipio de Sopela, que el nombre oficial de nuestro municipio es Sopelana y, sin embargo, la denominación original y académica, utilizada por un gran número de ciudadanas y ciudadanos tanto del municipio como de fuera de él, es Sopela. El cambio de denominación del municipio no es sólo una decisión que la legislación posibilita, sino que, en el caso de Sopela, resulta conveniente para adaptarla a la propia ley. Sin embargo, es competencia del Pleno municipal aprobar el cambio de denominación, sin perjuicio de la preceptiva ratificación por parte de otras instituciones para que el acuerdo tenga plena validez. Nos corresponde a las autoridades municipales analizar si existe razón, oportunidad y condiciones para un eventual cambio de denominación, tomar postura respecto a su conveniencia y, en Ayuntamiento Pleno, adoptar un acuerdo si se presenta el momento.

### **CONSIDERACIONES**

**Primera.-** En la reunión del pasado 15 de noviembre, el Pleno aprobó por mayoría una declaración institucional con motivo del Día Internacional del Euskera. Tal y como recogía el texto de la declaración, " la desregulación favorece, en sí misma e invariablemente, al idioma más fuerte ... ¡Entre las fuerzas políticas... somos capeces de hacer frente al desafío que tenemos ante nosotras y nosotros: el desafío de remover los obstáculos que nosotras/os mismas/os -desde incercias firmemente arraigadas en cada cual, en los colectivos de la sociedad civil y en las instituciones- colocamos en la labor cotidiana en pro del incremento del uso del euskera, de manera que logremos abrir camino a la normalización lingüística".

A través de la declaración institucional, el Ayuntamiento realizó una proclamación de la adquisición de diversos compromisos, como, "abrir nuevas posibilidades de uso del euskera... adaptar a los nuevos tiempos... y, con escrupuloso respeto hacia la opción lingüística de cada ciudadana/o, fortalecer las actitudes y conductas tendentes a favorecer el uso del euskera en la actividad cotidiana"

Por último, reivindicaba el siguiente esfuerzo: "una política equilibrada en pro del uso del euskera, basa sobre el principio de igualdad, recuperación y garantía de los derechos lingüísticos y alejada de toda tentación extremista. Nos lo debemos a nosotras mismas y nosotros mismos y a las nuevas generaciones".

El hecho de haber sido aprobada con el respaldo del 82% del Pleno, confiere una base sólida a tanto a los compromisos como a los criterios principales que recogidos en la declaración. Adoptar el acuerdo de

euskararen berreskurapenean eta, beraz, normalizazioan urrats garrantzitsua egitea da, zalantzarik gabe, helburu hori Udaltzaren gehiengo oso-oso zabalak babesten duelarik.

**Bigarrena.-** 10/1982 legeak, azaroaren 24koak, Euskararen Erabilera Normalizatzeko oinarrikoak, bere 10. artikuluan xedatzen duenez EAeko Udalerrietako izen ofizialak toki erakundeek finkatuko dituzte, "beti ere, jatorrizko izen euskaldun, erromantze ala gaztelaniazkoa errespetatuz, hizkuntza bakoitzari dagokion idazkera akademikoarekin". Halaber, zalantzaren aurrean Euskaltzaindiaren iritzia nagusitasuna ere xedatzen du.

**Hirugarrena.-** Euskaltzaindiak oso iritzi argia du gure udalerraren euskal forma jator arautuari dagokionez edo, 10/1982 legeak erabiltzen dituen kontzeptu berak erabiltzearen, euskal era akademikoari dagokionez. Iritzia behin eta berriro berretsi izan du azken 33 urteotan, gomendio izatetik arau izatera iritsi delarik.

- 1979an Euskaltzaindiak osatutako Euskal Herriko Udalen izendegian, Euskaltzaindiak onartu eta gomendatu zuen forma **SOPELA** izan zen.

- 1986an berretsi egin zuen erabaki hori Euskal Herriko Euskal Autonomia Erkidegoko herrien izendegian.

1987ko urriaren 28an, Onomastika Batzordeko Idazkari eta Euskaltzaindiako Lehendakariorde Jose Luis Lizundiak irizpena eman zuen eta Udal honetara bidali, Sopelako Udalerriaren izenaren "euskal era akademikoa" **SOPELA** dela argituz, Sopela delako eskualdeko euskaldunek herria izendatzeko erabili duten ohiko forma, toponomastikaren arau orokorrari jarraituz, bokalen arteko -n-a galduz. Sopelana izena, aldiz, udalerriri deitzeko "versión romance" bezala kalifikatzen zen. Halaber, Onomastika Batzordeak udalerraren izenaren euskal izena **SOPELA** dela berretsi zuela argitu zuen. Herritarren gentilizioari dagokionez, aldiz, sopelar edo sopelaztar dela edierazten zuen irizpenak.

- 1997ko urtarrilaren 28an, irizpen berri bat eman zuen, oraingoan Euskaltzaindiak berak, aurrekoa berretsiz: "**Sopela** da egun ofiziala den Sopelana herriko euskal izen jatorra eta hau bere deklinabidea". Euskaltzaindiak **Sopela** izena, "euskaldunek mendez mende erabilitako izena eta egun erabiltzen dena, bai herrian bertan baita ingurukoetan ere" aspaldian hobetsi zuela ziurtatzen zuen, Sopelana izenetik euskal fonetikaren legeei jarraituz eratorritako forma baita. Herritarrek izendatzeko sopelaztar gomendatu zuen.

denominar a nuestro municipio con el nombre acorde a su originalidad y la normativa académica constituye, sin duda, un paso importante en la recuperación del euskera y, por lo tanto, en su normalización, objetivo que la inmensa mayoría de este Pleno comparte.

**Segunda.-** De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 10 de la ley 10/1982, de 24 de noviembre, de Normalización del Uso del Euskera, serán las Corporaciones Locales quienes deberán establecer la nomenclatura oficial de los municipios, "respetando en todo caso la originalidad euskaldun, romance o castellana, con la grafía académica propia de cada lengua". Asimismo, establece la autoridad de Euskaltzaindia-Real Academia de la Lengua Vasca, en caso de duda, sin perjuicio de la competencia resolutoria del Gobierno Vasco:

**Tercera.-** El criterio de Euskaltzaindia respecto a la forma originalmente académica, en relación con lo dispuesto por la ley 10/1982, del nombre del municipio es sobradamente clara. Ha ratificado su dictamen en numerosas ocasiones a lo largo de los últimos 33 años, alcanzando, de la propuesta o recomendación inicial, el carácter de norma.

- La forma que Euskaltzaindia aprobó y recomiendo en el Nomenclator de Municipios del País Vasco-Euskal Herria compilado en 1979, fue la de **SOPELA**.

- Dicho acuerdo fue ratificado en 1986 en el Nomenclátor de los pueblos de la Comunidad Autónoma Vasca del País Vasco.

El 28 de octubre de 1987, el Secretario de la Comisión de Onomástica y Vicepresidente de Euskaltzaindia emitió y remitió a este Ayuntamiento dictamen acerca de la "versión académica euskérica" del nombre del municipio de Sopela, determinando que es **SOPELA**, dado que es "la forma tradicional usual de la población euskaldun o vascófona de la zona, siguiendo la regla general de la toponomástica de la pérdida de la -n- intervocálica". En el dictamen se refiere al nombre Sopelana como "la versión romance". El dictamen, asimismo, aclaró que la Comisión de Onomástica se ratificó en que "el nombre euskérico de este municipio es **SOPELA** y el de su gentilicio euskérico sopelaztar o sopeloztar".

- El 28 de enero de 1997, esta vez Euskaltzaindia como tal, emitió un nuevo dictamen ratificando el anterior: "**Sopela** es la forma euskérica del actual municipio de Sopelana, siendo su declinación la siguiente". El dictamen certificaba que **Sopela** es el nombre "dictaminado" por Euskaltzaindia, "utilizado secularmente, hoy en día en uso, por la totalidad de los vasco hablantes del municipio de Sopelana, así como los limítrofes", dado que es la forma derivada de Sopelana, de acuerdo con las leyes fonéticas del euskera. El dictamen recomendó, al igual que el anterior, sopelaztar como gentilicio.

- Horrez gain, euskararen erabilera normalizatzeko den 10/1982 legerari buruzko aipamen bat egiten zuen, lege honen 10. artikulua toki izenaren jatorrizko idazkerari men egingo zaiola xedatzen baitu.

- Bide beretik jo zuen 2001ean onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle-Entitateak izendegian.

- 2005eko azaroaren 25ean, 145. araua onartu zuen Euskaltzaindiak Donostian, Bizkaiko Herri Izendegia alegia. Arau horretan aurreko erabaki guztiak berretsiz, Udalerrriaren euskal izen arautua **SOPELA** zela xedatu zuen. Gentizioan aldaketa txiki bat eginez **sopeloztar** edo **sopelar** zela xedatu zuen.

- 2011n Euskal Herriko Udalen izendegiaren bilduma osatu zuen, jakina, 145. arauan xedatutakoa jasoz.

- Alkatetzaren 2012ko azaroaren 29ko eskariz, Euskaltzaindiak beste behin ere, berretsi egin du, 2012ko abenduaren 13an emandako egiaztagiriaren bidez, Sopela delu udalerrriaren euskal izen arautua eta zuzena; eta sopelar edo sopeloztar herritarrei dagozkien jentilizioak.

Udalari igorritako egiaztagirian Euskaltzaindiak islatzen duenez, "Sopelana formatik **Sopela herri-izenerako bilakaera aspaldikoa da, euskarazko lege fonetikoan arabera gertatutakoa** eta, hortaz **euskal izen zuzena. Sopela formaren erabilera arrunta izan da euskaldunen artean, nahiz eta administrazioek mendeetan zehar erabili duten hizkuntzaren eraginez Sopelana forma gorde izan den**".

Halaber, Euskaltzaindiak, **Sopela** izenaren aldeko hautua **AHO BATEZ** hartu zuela egiaztatzen du, "euskararen lege fonetikoak, datu historikoak", baita "lehengo eta oraingo lekukotasunak" ere kontuan hartuta.

Honengatik eta hainbat lege, azterketa, ikerketangatik eta euskaldunok beti erabili izan dogulako Euskaraz **SOPELA** hitza proposatzen dena da: Udalbatza honetan honen inguruan eztabaidatu, bozkatzea eta erabakitzea Udalerrriaren izena Sopela izan dadin, izenaren aldaketaren prozedurari hasiera ematea dagozkion prozedura administratibo desberdinekin

Ondoren, hitza hartu du Alderdi Popularreko udal-talde politikoko zinegotzi Berta Rodríguez andreak, eta agertu du berriro esan nahi duela Euskara, Hezkuntza eta Kulturako Informazio Batzordean adierazitakoa. Bere ustez, ez da lehentasuneko, gai garrantzitsuagoak

- Además, el dictamen hacía una mención a la ley 10/1982, de normalización del uso del euskera, dado que el artículo 10 de la misma establece que se respetará la originalidad y la grafía propia de cada lengua.

- En idéntico sentido se pronunció con la aprobación, en el año 2001, del nomenclátor Entidades de Población de la Comunidad Autónoma de Euskadi

- El 25 de noviembre de 2005, Euskaltzaindia aprobó en Donostia la **norma 145**, es decir, el Nomenclátor de los Pueblos de Bizkaia. En dicha regla, ratificando todas las anteriores resoluciones, se determinó que, conforme a la norma académica, el nombre del municipio era **SOPELA**. En cuanto al gentilicio, introduciendo una pequeña modificación, determinó que era **sopeloztar** o **sopelar**.

- En 2011, se aprobó el Nomenclátor de Municipios del País Vasco-Euskal Herria, recogiendo, lógicamente lo que se había determinado en la norma 145.

- En respuesta a la petición de Alcaldía de 29 de noviembre de 2012, Euskaltzaindia ha ratificado una vez más, mediante certificación expedida el 13 de diciembre de 2012, que la forma euskérica correcta del nombre es Sopela; y sopelar o sopeloztar, el gentilicio que debe aplicarse a las ciudadanas y los ciudadanos.

Tal y como Euskaltzaindia recoge en la certificación que ha sido remitida al Ayuntamiento, "**la evolución del nombre de la población** de la forma Sopelana **a Sopela se produjo hace mucho tiempo, acaecida con arreglo a las reglas fonéticas del euskera** y, por lo tanto, es el nombre vasco correcto. La utilización de la forma Sopela ha sido común entre la población vascófona, aunque debido al idioma utilizado durante siglos por las administraciones, se ha conservado la forma de Sopelana.

Asimismo, certifica el Euskaltzaindia adoptó el acuerdo a favor del nombre de Sopela por UNANIMIDAD, tras tener en cuenta "las leyes fonéticas del euskera, los datos históricos", así como, "los testimonios antiguos y presentes".

Por todo ello, y por diversas leyes, estudios e investigaciones y porque los vascos siempre hemos utilizado el nombre en Euskera **SOPELA**, se propone debatir en este Pleno, votar y decidir modificar el nombre del Municipio, iniciando así el procedimiento para el cambio de denominación del municipio para adoptar el nombre de **SOPELA**.

A continuación toma la palabra D<sup>a</sup> Berta Rodríguez, del Grupo Político Municipal Partido Popular, para indicar que se reitera en lo que expuso en la Comisión Informativa de Euskera, Educación y Cultura. Que considea que no es

baitira, eta eztabaida honek ez zuen une honetan zertan sortu. Bozketan, abstentzioa emango duela.

Ondoren, hitza hartu du Sopelako Euskal Sozialistak (PSE.EE.PSOE) udal-talde politikoko zinegotzi María Teresa Fernández andreak, eta esan du gai hau hizkuntza-arazo gisa planteatu zela hasieratik beretik, eta, bere ustez, ez dela horrela, gai politikoa eta borondate politikoa araberakoa baita. Ez dakiela Sopelako herritarrek zer nahi duten. Bere proposamena zen hurrengo hauteskundeetan —direnak direla— hautestontzi bat gehiago jartzea, eta auzotarrek erabaki dezatela. Baina horrela egingo ez denez, erabilera bikoitza proposatzen du, alegia, gaztelaniaz hitz egitean Sopelana erabil dadila eta euskaraz mintzatzean, Sopela.

Jarraian, hitza hartu du Eusko Abertzaleak udal-talde politikoko zinegotzi Leire Basauri andreak, eta adierazi duenez, beren ustez udalerrri baten izenak adostasunetik datorren zerbait izan behar du, eta ez elkarren aurka aritzeko zerbait. Bere alderdiaren barruan, denbora luzez, elkarren aurkako bi jarrera izan dira, hau da, batzuek Sopelana deitzearen alde egiten zuten; beste batzuek, berriz, Sopelaren alde. Eta horrela gertatuko bide zen gainerako alderdietan. Dirudenez, unea heldu da. Dena dela, bere ustez gauzak ez dira "indarrez" egin behar. Hain gai garrantzitsua izanda, dagokion eztabaidak luzea, pentsatua eta sakona izan behar du, eta gainerako jarrerak kontuan hartu behar dira. Bere taldeak proposamenaren aldeko botoa emango duela, baina ulertzen dutela beste jarrera batzuk —bere ustez, oso errespetagarriak— izatea, eta hori guztia argi geratzea nahi dutela.

Ondoren, hitza hartu du Bildu udal-talde politikoko zinegotzi Betitxe Saitua andreak, eta adierazi duenez, erabat ados dago jarrera biak oso errespetagarriak direla esatearekin. Leire Basauri andreak azaldutakoari dagokionez, hau da, gai hauek ez direla elkarren aurka aritzeko erabili behar, adierazi nahi du inola ere ez dela asmo horrekin egin. Izan ere, batzorde batean planteatu zen, eta alderdiek denbora gehiago eskatu zuten gaia sakonago aztertzeko. Denborarena erlatiboa izan daitekeela. Aurretik esan bezala, Euskaltzaindiak 1979an ere Sopela zela esaten zuela, eta askorentzat, eztabaida gertatu arteko denbora nahikoa luze izan dela. Kanean eztabaidatu egin da, gai hau aurreko legegintzaldietan ere planteatu da, eta abar; beraz, ez da batere berria bere taldeak orain gai hau ateratzea. Leire Basauri andreak edo bere taldeko norbaitek egun batean esan zuela garrantzitsua izango zela gai honen inguruan adostasun zabala lortzea; eta bere taldea erabat ados dagoela horrekin, hasieratik bertatik, dokumentazioa eskuan zutela, adostasunaren bila aritu baita eta abar. Betidanik gai hau edozein unetan eztabaidatzeko prest agertu direla, Euskaltzaindiako jendea etorri dela gai hau azaltzera, ez dela informaziorik falta izan eta abar. Izugarri poztan dela Eusko Abertzaleak udal-talde politikoko

prioritario, toda vez que hay temas más importantes y es un debate que no tenía que haber surgido en este momento. Que se abstendrá en la votación.

Después toma la palabra D<sup>a</sup> María Teresa Fernández, del Grupo Político Municipal Socialistas Vascos (PSE.EE.PSOE) de Sopelana, para señalar que este tema se planteó desde el principio como una cuestión lingüística, y considera que no es así, que es un tema político y de voluntad política. Desconoce lo que desean los ciudadanos de Sopelana. Que su propuesta era que en las próximas elecciones, las que fueran, añadir una urna y ver lo que decían los vecinos pero puesto que esto no se va a dar, propone que se admita el doble uso de los términos, es decir, cuando se hable en castellano se hable de Sopelana y cuando se hable en Euskera sea Sopela.

Acto seguido toma la palabra D<sup>a</sup> Leire Basauri, del Grupo Político Municipal Nacionalistas Vascos – Eusko Abertzaleak para señalar que consideran que el nombre de un Municipio tiene que ser un asunto de consenso y no algo que sea utilizado para la confrontación. En el seno de su partido, durante mucho tiempo, ha habido posturas encontradas, es decir, unos abogaban por Sopelana y otros por Sopela, como supone habrá habido o habrá en el resto de partidos. Al parecer, ha llegado el momento. De todas maneras, considera que las cosas no hay que hacerlas "a la fuerza". Siendo un tema tan trascendente el debate tiene que ser largo, pensado, profundo y teniendo en cuenta las demás posturas. Que su grupo votará a favor de la propuesta, pero desea que quede claro que entienden que haya otras posturas y que las ven muy respetables.

Después toma la palabra D<sup>a</sup> Betitxe Saitua, del Grupo Político Municipal Bildu, para indicar que está totalmente de acuerdo que las dos posturas son muy respetables. En cuanto a lo comentado por D<sup>a</sup> Leire Basauri, en relación a que no hay que convertir esta clase de asuntos en temas de confrontación, quiere señalar que de ninguna manera se ha hecho con ese afán, toda vez que se planteó en una Comisión, se solicitó por parte de los partidos más tiempo para estudiar en profundidad el asunto. Que en relación al tiempo puede ser relativo, toda vez que como ha comentado anteriormente en el año 1979 Euskaltzaindia ya decía que era Sopela, por lo que para muchos el tiempo ha sido bastante largo para poder dar lugar a un debate. Ha habido un debate en la calle, se ha planteado este tema en anteriores legislaturas, etc por lo que no es nada nuevo que su grupo haya sacado ahora este debate. Que D<sup>a</sup> Leire Basauri o alguien de su grupo, comentó en su día, en cuanto a este tema sería importante buscar un consenso amplio y su grupo está totalmente de acuerdo con eso, ya que se ha buscado el mismo desde el principio, con documentación en la mano, etc. Se ha estado siempre dispuesto a debatir el asunto en cualquier momento, ha venido gente de Euskaltzaindia para explicar el tema, no ha faltado información etc. Que se

emango duen aldeko botoarekin.

Hitza hartu du Eusko Abertzaleak talde politikoko zinegotzi Leire Basauri andreak, eta bi gauza esan ditu: Lehenengoa, bere taldearen barruan sortu den eztabaida uste duela beste elkarte eta alderdi politikoetan ere egin dela, norbanakoek eztabaidatu dutela eta abar. Garrantzitsua ez dela bere talde politikoak adostasuna lortzea, baizik eta, bere taldean egin den bezala, herritarrek adostasuna lortzea. Hori dela garrantzitsua. Bere taldeak ez duela jotzen Bilduk edo bere talde politikoak planteatu eta aztertutako gaitzat. Gaia osotasun bat dela ulertzen dutela, udalerraren ardura bat. Betitxe Saitua andreak esan ez bezala, bere taldeak ez dakiela eztabaida kalera eraman den. Bere taldeak egin beharrekoa egin duela, baina ez dakitela kalean zer egin den. Bigarrenez, denborari dagokionez, urtarriletik hona bi hilabete igaro dira. Planteatu den eztabaida bi hiletan egin dela.

Abstentzia eman dute Euskal Sozialistak (PSE.EE.PSOE) udal-talde politikoko María Teresa Fernández andreak eta Pablo Ignacio Zabala jaunak, eta Alderdi Popularreko Udal Talde Politikoko Berta Rodríguez andreak.

Udalbatzak, udalkideen gehiengo osoz, honako akordio hau hartu du:

Has bedi udalerraren izena aldatzeko prozedura, SOPELA deitzea helburutzat duena.

**Ondoren, hitza hartu du alkate andreak, eta adierazi duenez, puntu hau oso gai berezia da eta, horregatik, ondoko hau esan nahi du:**

*“Gaurkoa egun historikoa da; Sopelako udalbatzak, azkenean, Euskaltzaindiak, euskalgintzak eta sopeloztar euskaldunok etengabe aldarrikatu duguna berretsi du: gure herriaren izena ‘Sopela’ dela, sopeloztarrok izen horregaz identifikatzen dugula gure herriaren izena, ‘Sopela’ gure sentitzen dugula, eta beraz, udalerriko izen ofizialak hori islatu behar duela.*

*Historikoa diogu, baina ez gure herriko izena gaur aldatuko delako. Ez. Guretzat, gure herriko izena beti izan da ‘Sopela’, hala sentitu dugulako eta euskaraz hala erabili dugulako beti. Baina historikoa da, azkenean gure herriko erakundeak, Udalak hain zuzen ere, sentimendu eta nahi hori modu ofizialean islatuko duelako. ‘Sopela’ erabili dugu sopeloztarrok herriko kaleetan, etxeetan, baserrietan, eskolan, ikastolan... eta orain, Udalak ere hala egingo du, prozesu hau amaierararte heltzen*

alegra muchísimo del voto a favor del Grupo Político Eusko Abertzaleak – Nacionalistas Vascos.

Replica D<sup>a</sup> Leire Basauri, del Grupo Político Eusko Abertzaleak – Nacionalistas Vascos para decir dos cosas: Primera, que el debate que ha surgido en el seno de su grupo, considera se ha debido hacer en otras Asociaciones, Partidos Políticos, personas individuales, etc. Que lo importante no es que su grupo político haya llegado a un consenso, sino que como se ha hecho en su grupo, sino que la ciudadanía llegue a ese consenso. Eso es lo importante. Que su grupo no entienda este tema como un tema planteado y estudiado por Bildu o su grupo político. Que entienden el tema como un todo, como una responsabilidad del Municipio. Que como ha dicho D<sup>a</sup> Betitxe Saitua, su grupo no conoce que se haya llevado el debate a la calle. Que su grupo ha hecho lo que ha tenido que hacer, pero desconocen lo que se haya podido hacer en la calle. En segundo lugar, en relación al tiempo, desde Enero a estos momentos son dos meses. El debate que se ha planteado, se ha planteado en dos meses.

Con la abstención de D<sup>a</sup> Teresa Fernández y D. Pablo I. Zabala del Grupo Político Municipal Socialistas Vascos (PSE.EE.PSOE) de Sopelana y de D<sup>a</sup> Berta Rodríguez del Grupo Político Municipal Partido Popular.

El Pleno, por mayoría absoluta de miembros de la Corporación, acuerda:

Iniciar el procedimiento para el cambio de denominación del municipio para adoptar el nombre de SOPELA.

**Acto seguido toma la palabra la Sra. Alcaldesa para indicar que al ser este punto muy especial quiere señalar lo siguiente:**

*“El de hoy es un día histórico: el Pleno del Ayuntamiento de Sopela, finalmente, ha refrendado lo que desde Euskaltzaindia, el sector cultural vasco y los vascoparlantes sopeloztarras se ha reivindicado constantemente, es decir, que la denominación de nuestro pueblo es ‘Sopela’, que los sopeloztarras identificamos nuestro pueblo con ese nombre, que sentimos la denominación ‘Sopela’ como nuestra, y que por tanto, el nombre oficial de nuestro municipio debe reflejar ese sentir.*

*Decimos que es histórico, pero no porque hoy se vaya a cambiar el nombre de nuestro pueblo. No. Para nosotros y nosotras, el nombre de nuestro pueblo siempre ha sido “Sopela”, porque así lo hemos sentido y porque en euskara así lo hemos utilizado siempre. Pero es histórico, porque, finalmente, nuestra institución, el Ayuntamiento, recogerá de manera oficial ese sentimiento y deseo. Los y las sopeloztarras hemos utilizado ‘Sopela’ en las calles del pueblo, en nuestras casas, nuestros caseríos, nuestra*



denean.

*Izena aldatzeko prozedura legegintzaldi honetan hasi baguenen ere, ezin dugu ahaztu azken hamarkadetan, sasi guztien gainetik, 'Sopela' izena aldarrikatu duten lagunak. Bidean hamaika oztopo topatu arren, aurrera egiten jarraitu duzuenoi. Sopelan euskarak merezi duen begirune eta errespetua aitortzeko lanean jarraitu duzuenoi. Zuentzat gaur Udal honek hartu duen erabakia, azkenean, lortu da. Ezina, ekinez egina! Gora Sopela!"*

### Ekonomia eta Ogasuna

**4.- BETEBEHARRAK AITORTZEA.** Foru Arauak -Bizkaiko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak- 40 eta 41.2 artikuluekin bat, eta betebeharra aitortu aurreko gastu-baimenik ez dagoela-eta,

Aztertu da Ekonomia eta Ogasuneko Informazio Batzordearen proposamena.

Horiek horrela, Udalbatzak, aho batez, honako akordio hau hartu du:

Ondoko betebeharra aitortzen da.

Hornitzailea Proveedor	Zenbatekoa Cuantía	Kontzeptua Concepto
Euskal Idazleen Elkarte	160,00 €	Irakaslea: Pilar Pozo Idazlea: Patxi Zubizarreta Dorronsoro

**5.- 2013RAKO UDAL AURREKONTUAREN HASIERA BATEAN ONESTEA, BALEGOKIO.** Izapideturiko espedientearen berri eman da,

Idazkariak azaldu duenez, Bildu Udal Talde Politikoak proposamenaren zuzenketa bat aurkeztu du. Adierazi denez, zuzenketa onetsiz gero, bere edukia proposamenaren agirian txertatuko da, eta proposamen horri buruzko botazioa egingo da zuzenketa sartzearen ondorioz idatzita geratzen den moduan, eta gaitzetsiz gero, proposamenaren agiririari buruzko botazioa egingo da, sinatzaileak aurkeztu duen moduan, eta eztabaidatzen amaitu ostean.

*escuela, nuestra ikastola... y ahora, a partir de que este proceso llegue a su fin, también el Ayuntamiento hará ese mismo uso.*

*Si bien ha sido en esta legislatura cuando hemos iniciado el procedimiento de modificación de la denominación, no podemos olvidar a aquellas personas que durante las últimas décadas, por encima de todas las trabas, han reivindicado el nombre "Sopela". Eskerrik asko a todos y todas que, aún y encontrando numerosos obstáculos en el camino, habéis persistido; eskerrik asko a todos y todas aquellas personas que continúan en la tarea para que se reconozca al euskera la consideración y respeto que se merece en Sopela. Para vosotros y vosotras es el acuerdo que hoy ha adoptado este Ayuntamiento. Al final, se ha conseguido. ¡Lo imposible con tesón se consigue! Gora Sopela!"*

### Economía y Hacienda

**4.- RECONOCIMIENTO OBLIGACIONES:-** De conformidad a los artículos 40 y 41.2 de la Norma Foral 10/2003, Presupuestaria del Territorio Histórico de Bizkaia, y ante la carencia de autorización del gasto previa al reconocimiento de la obligación.

Vista la propuesta de la Comisión Informativa de Economía y Hacienda.

El Pleno, por unanimidad, acuerda

El reconocimiento de la siguiente obligación:

**5.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL PRESUPUESTO GENERAL PARA EL EJERCICIO 2013.** Dada cuenta del expediente tramitado,

Por parte de la Secretaria se da cuenta de que por el Grupo Político Municipal Bildu se ha presentado una enmienda a la proposición. Se señala que en caso de ser aceptada, se incorporará su contenido al documento de propuesta pasándose a votar ésta en la forma en que haya quedado redactada como consecuencia de la incorporación de la enmienda, y si fuera rechazada, se pasará a la votación del documento de propuesta, tal como lo hubiera presentado el firmante y tras las intervenciones que se pudieran producir.

Gero Bildu udal talde politikoko Leire Pinedo andreak hartu du hitza. Adierazi du 2013ko ekitaldirako aurrekontuak aurkeztuko dituztela, onartzeko. Jakina denez, aurrekontuak egiteko orduan, krisiak eragin handia izan du beraietan, diru-sarrera gutxiago egon direlako. Diru-sarreraren murrizketa hori % 10 ingurukoa izan da. Murrizketa nagusia Udalkutxatik dator, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiak udalei ematen dien dirutik. Horrek asko baldintzatzen du aurrekontua. Kontuan izan behar da Udalkutxatik datorren dirua gure aurrekontuaren % 50 inguru dela. Horrenbestez, aurrekontua aldundiak egiten duenaren edo egiten ez duenaren mende dago neurri handi batean. Gure aurrekonturako proposamena 12,5 milioi eurokoa da. Aurrekontuen filosofia zerbitzu publikoei ahalik eta hoberen eustea eta murrizketei aurre egitea izan da, eta horretan egin dugu lan. Aurreko urtean bezala, zerbitzu publikoak mantentzeko eta, lehen esan dudanez, murrizketei aurre egiteko, sail guztiak optimizatu dira, eta gastua kontrolatu dugu, ahal izan den lekuetan. Hauxe da, laburbilduz, proposamena. Aurrekontu honetan Bildu udal talde politikoa zuzenketa aurkeztu dio eta hauxe da arrazoa. 2012ko ekitaldirako aurrekontuaren likidazioaren berri jakin dugu. Horren arabera, udal honek egindako politika ekonomikoari esker, gerakina 1,5 milioi eurokoa izan da. Gerakin horrekin udalak dauzkan zor guztiak kitatu nahi ditugu. Udal honek 2009ko zor bat eta 2011ko beste bat dauzka foru aldundiarekin. Zor horietatik, ekitaldi honetan, 450.000 euro inguru daude aurrekontuan, ez bakarrik zenbateko hori, baizik eta ordaintzeko dagoen guztia. Aurreko urtean egindako kudeaketari esker, zor guztiak ordaindu ahal izan ditugu. Beraz, 2013. urteari dagozkion zor guztiak kitatzean, aurrekontua zuzendu da, eta zenbateko hori partida hauei bideratzea proposatzen dugu: turismoko proiektuak, eraikinen eta bideen garbiketa, txakurrak jasotzeko zerbitzua, hiri irisgarritasuna hobetzeko obrak. Gainera, udalaren lur ondarea eta administrazioa modernizatzekeo prozesuak partidak sortu nahi dira.

Gero Sopelanako Euskal Sozialistak (PSE.EE.PSOE) udal talde politikoko Teresa Fernández andreak hartu du hitza. Azaldu du bere taldeak, informazio batzordeetan eta elkarrizketa informalean, eta Bozeramaileen Batzordean ere, puntu hau aztergai zerrrendatik kentzeko eskatu zuela. Izan ere, uste dute gaur egun bizi dugun krisialdian aurrekontua ondo pentsatuta, soseguz eta herritar guztien mesedetan egin behar dela. Bere taldeak askotan aurreko ekitaldirako aurrekontuaren likidazioari buruzko informazioa eskatu du, araudiaren arabera aurrekontuari lotuta dagoena. Dokumentazio hori, ordea, ez zaie eman. Horregatik guztiagatik, taldeak aurkako botoa emango du.

A continuación toma la palabra D<sup>a</sup> Leire Pinedo, del grupo político municipal Bildu, para indicar que se presentan los presupuestos para el ejercicio 2013 para que sean aprobados. Como es sabido y a la hora de elaborar los presupuestos, la crisis ha tenido gran incidencia en los mismos, toda vez que supone unos ingresos menores. Esta minoración de ingresos supone aproximadamente un 10% y el principal recorte viene dado por Udalkutxa, es decir, el dinero que la Diputación Foral otorga a los Ayuntamientos. Este hecho condiciona mucho la elaboración de los mismos. Hay que tener en cuenta que el dinero que viene de Udalkutxa es aproximadamente un 50% de nuestro presupuesto, por lo que éste, de alguna manera, queda condicionado a lo que hace o deja de hacer la Diputación. Nuestra propuesta de presupuesto es de 12,5 millones de euros. La filosofía de los mismos, y en ello se ha trabajado, ha sido mantener lo mejor posible los servicios públicos y hacer frente a los recortes. Como el año pasado, para mantener los servicios públicos y como he dicho anteriormente hacer frente a los recortes se ha optimizado cada departamento, se ha controlado el gasto donde se ha podido controlar. Eso es, en resumen, la propuesta. A este presupuesto, desde el grupo político municipal Bildu, se presenta una enmienda y la razón es la siguiente: Se ha conocido la liquidación del presupuesto del ejercicio 2012 y según la misma, y gracias a la política económica llevada a cabo por este Ayuntamiento, el remanente resultante ha sido de 1,5 millones de euros. Con ese remanente se pretende pagar todas las deudas que tiene el Ayuntamiento. Que este Ayuntamiento tiene una deuda con la Diputación Foral del año 2009 y otra del año 2011. De estas deudas, en el presente ejercicio, están presupuestados aproximadamente 450.000 €, no únicamente esa cantidad sino toda la pendiente. Gracias a la gestión llevada a cabo el año pasado, se ha conseguido pagar todas las deudas, por lo tanto, al liquidar las deudas correspondientes al año 2013 se enmienda el presupuesto proponiendo destinar dicha cantidad a las partidas de Proyectos Turísticos, Limpieza edificios / Limpieza viaria, Servicio de recogida de perros, Obras de mejora accesibilidad urbana y además creando las partidas del Patrimonio Municipal del Suelo y la correspondiente a los Procesos de modernización de la Administración.

Después toma la palabra D<sup>a</sup> Teresa Fernández, del Grupo Político Municipal Socialistas Vascos (PSE.EE.PSOE) de Sopelana, para indicar que su grupo, tanto en las Comisiones Informativas, en conversaciones más informales, incluso en la Junta de Portavoces, solicitó que se retirará el punto del orden del día toda vez que consideraba que dado el tiempo de crisis que se vive actualmente y que hay que hacer un presupuesto meditado, sosegado y por el bien de toda la ciudadanía. Que reiteradas veces su grupo ha solicitado información que según la normativa va ligada al Presupuesto, que es la relativa a la liquidación del Presupuesto del ejercicio anterior, documentación que no se les ha facilitado. Que

Gero Leire Basauri andreak, Eusko Abertzaleak udal talde politikoko kideak, hitza hartu du. Esan du bere taldeak zirriborro bat landu duela eta partida guztiak sakondu eta aztertu dituztela, udalak dauzkan aukera guztiak aprobetxatzeko, zerbitzu publikorik galdu gabe eta udalerriri iraunkorra edukitzeko. Bere taldearen ustez aurrekontuak adostasun zabalaz atera behar dira aurrera. Udalerriri proiektuak aurkezteko tresna da. Horregatik, bere taldeak landu dituen ildoak orain arte defendatutakoak dira, orain dela bi urteko hauteskunde programan azaldu zituenak. Proiekturik handien edo garrantzitsuenen artean, bere taldearen ustez, liburutegia dago. Liburutegi egokia eta diziplina askotakoa nahi dute udalerriko herritarrentzat, eta liburutegia Sopelanan egotea nahi dute, beste udalerriri batzuetako liburutegietara joan beharrik gabe, gurean lekurik ez dagoelako. Uste du gai hau ez dela garrantzitsua Bildu udal talde politikoaentzat. Bestalde, uste du turismoa Sopelanako industria dela eta, horregatik, merezi duen garrantzia eman behar zaiola. Aurreko legegintzaldian, eskualdean, proiektu bat abiatu zen. Bertan, udalerriri bakoitzak zeukan aberastasuna ustiatzen zuten. Adibidez, Getxon Galeako gotorlekua, Gorliz zentro ozeanografikoa, Barrikan trokaka, eta gurean, burdinazko gerrikoaz gain, kostaldeko aberastasuna. Taldeak udalerriko puntu beltzak kentzea defendatuko luke, segurtasunari dagokionez. Puntu beltzak jakiteko ikerketa bat egin zen eta uste du ahalegin bat egin beharko zela horiek kentzeko, Sopelanako herritar guztiak mesedetzeko, batez ere emakumeak, haiek direlako kolektiborik sentikorrena. Oso kezkatuta daude diru-laguntzen murrizketagatik, oso gai garrantzitsua delako. Elkarre askok diru-laguntza horien beharra daukate euren proiektuak aurrera ateratzeko eta uste dute neurrietan asko sakondu behar dela, diru-laguntzak ez murrizteko. Bilduren planteamendua eta bere talde politikoa oso ezberdinak direnez gero, proposamenaren aurkako botoa emango dute.

Berta Rodríguez andreak, Partido Popular udal talde politikokoak, hitza hartu du eta azaldu du bere taldea ez dagoela ados aurkeztu den aurrekontuaren zenbait atalekin. Gastu arrunta aurrekontuaren % 90 da, baina 2012ko ekitaldian % 83koa zen. Beraz, % 7an gehitu da. Inbertsioak aurreko ekitaldian % 14 ziren eta 2013ko ekitaldian % 5. Uste du gastu batzuk gehiago doitu ahal direla, adibidez, publizitaterako eta propagandarako 90.000 euro baino gehiago erabiltzeari gehiegizkoa deritza. Udalerriko jaien alde egin behar da baina gastua 250.000 eurokoa da eta uste du doitu ahal dela. Euskal

por todo ello su grupo votará en contra.

